



PRENTSA OHARRA: 2021.11.04

Cervantes Institutuak, Acción Cultural Españolak (AC/E), Etxepare Euskal Institutuak eta Bilboko Arte Ederren Museoak *Gonzalo Chillida* erakusketa aurkeztuko dute datorren asteartean, azaroak 9, Parisen

- Espainiar estatuan abstrakzio lirikoaren figura adierazgarrienetakoa da artista donostiarra.
- Frantziako hiriburuko Cervantes Institutuan aurkeztu ondoren, erakusketak nazioarteko ibilbideari ekingo dio, Institutuak Erroman eta Tokion dituen zentroetara joz, Bilboko Arte Ederren Museoan amaitu arte.

Madril, Bilbo, Donostia, 2021eko azaroaren 4a.- Azaroaren 9an, asteartean, Gonzalo Chillida (Donostia, 1926-2008) pintoreari eskainitako erakusketaren aurkezpena egingo da Parisko Cervantes Institutuaren egoitzan. Espainiar estatuko abstrakzio lirikoaren figura adierazgarrienetako bat da, eta ahots propioa du, natura etengabe behatzean inspiratuta.

Cervantes Institutuak, Acción Cultural Españolak (AC/E), Etxepare Euskal Institutuak eta Bilboko Arte Ederren Museoak antolatuta, erakusketak pintorearen artelanen multzo adierazgarri bat bilduko du: 34 margolan, 10 litografia eta 180 argazki eta *fotocollage* inguru. Arte-historialari, komisario independente eta artistaren alaba den Alicia Chillidak aukeratu ditu lanak. Artelanak familiarenak eta beste bilduma partikular eta publiko batzuetakoak dira, eta kronologia zabala dute, 1950etik 2007ra artekoa.



Erakusketan, gainera, 2016an Alicia Chillidak eta Benito Maciasek zuzendutako *La idea del Norte* filmaren proiektzioa sartu da. 40 minutuko iraupena duen filmak areago sakontzen du pintorearen sormen-prozesuan eta bere ibilbidean zehar behin eta berriz jorratu zituen paisaiatik ateratako motiboak –zerua, itsasoa, harea, basoak...– behatzeko zuen gaitasunean.

Erakusketa dela-eta, argitalpen bat atera da –euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez, italieraz eta japonieraz–, Alicia Chillidaren aurkezpen batekin eta Miguel Zugazaren epilogo batekin, eta José Ángel Irigaray eta Gabriel Celaya poeten, Antonio Saura margolariaren eta Francisco Calvo Serraller historialari eta arte-kritikariaren idazkiak berreskuratu ditu.

Erakusketa azaroaren 9an inauguratuko da, asteartean, Parisko Cervantes Institutuan. Bertan, 2022ko otsailaren 28ra arte egongo da zabalik; gero, Institutuak Erroman (2022ko martxoa/ekaina) eta Tokion (2022ko uztaila/urria) dituen egoitzetara joango da, eta 2023an Bilboko Arte Ederren Museoan amaituko du ibilbidea.

Info+

Mikel Lasa
Etxepare Euskal Institutua
Tabakalera / Andre Zigarrogileen plaza, 1
Donostia / San Sebastián
T: 943 023 400 / M: 688 670 217
komunikazioa@etxepare.eus

www.etxepare.eus